

Balorezko proposamena

Gure hobbietako bat da lurralde desberdinetara joatea janaria dastatzeko eta kultura desberdinak ikasteko. Baina, gure arazoetako bat da, hemengo jatetxeetara joaten garenean gutako bakoitzak janari mota oso desberdina jan nahi duela da eta hortaz, ez gara inoiz ados jartzen jatetxea erabakitzeke momentuan. Hori dela eta, jatetxe bat sortzea bururatu zitzaigun, hainbat herrialdeetako janaria eskainiko dituen.

Honez gain, herrialde ugari bisitatu ditugu eta gaur egungo sozietatean dauden gatazkek asko arduratzen gaituzte. Hau horrela izanik, eta nolabait egoera hobetu nahirik, herrialde desberdinetako etorkinak zerbitzari eta sukaldari bezala kontratatzea otu zitzaigun, izan ere, kolektibo honek oso zail dauka lan merkatura sartzea. Hori ahalbidetzeko, ONG batekin kontaktuan ipiniko ginateke etorkinei lana eta formakuntza eskaintzeko. Honekin nahi duguna da etorkinak beste lan batzuetara atek zabalik edukitzea.

Gure jatetxea erakargarriagoa izateko hainbat tokitan girotuta egongo da, horrela, jendea herrialde desberdinetako giroetan barneratzea lor dezakegu. Pentsatu genuen ere ideia ona izango zela jatetxearen espazio bat erreserbatzea denda bat egiteko. Honetan beste herrialdeetako produktuak egongo dira jendea eros ahal izateko eta horrela bere etxeetan janaria prestatzeko aukera izango dute.

Ideiarekin amaitzeko ikusi dugu herrialde askotan janari falta dagoela eta gosete handiak jasaten dituztela. Beraz, hori ikusita, pentsatu genuen ideia ona izango zela gure jatetxeke soberakinak jatetxe sozialei ematea.

Esandako guztia kontuan hartuta, beste enpresa batzuk ez bezala gure jatetxeak hainbat kulturetako janaria batera izango du. Gainera, etorkinen integrazioan kolaboratuko dugu.